



Bergarako  
Udala

Bergaran, 2021eko martxoaren 12an ondorengoak

**BILDU DIRA:**

Alde batetik, Gorka Artola Alberdi jauna, Bergarako Alkate-Udalburu den aldetik eta Bergarako Udalaren ordezkaritzan; M<sup>a</sup> Concepción Ugalde Izeta udaleko idazkariaren laguntza izango du eta azken honek ekintza hau egiaztatuko du.

Bestaldetik, Jose Ramon Aramendi Mendizabal jauna, adinez nagusia, NAN zenbakia duena, eta helbide soziala Donostian duena (Salamanca pasealeku), Caritas elkarteko Zuzendaria eta elkartea horren izenean.

Bi aldeek elkarri behartzeko ahalmena aitortu diote eta honako hau

**ADIERAZI DUTE:**

1. Bergarako Udalak Martoko 8an dagoen Martoko eskola zaharreko eraikinaren jabea.
2. Caritas elkartea Europatik etortzeko zen janari soberakina gordetzeko lekua behar zuela-eta, eraikin horretan lokal bat lagatzea eskatu zion Udalari, eta Udalak – 2014ko martxoaren 31n Udalbatzak egindako bilkuran– onartu egin zuen eta hitzarmena sinatu zen.
3. Orain, Caritas elkartea lokal hori erabiltzen jarraitzeko premia du, baina bertatik ematen duen zerbitzuak eragindako gastuei aurre egiteko dirulaguntza bat eskatu dio udalari eta baita janariak Elikagaien Bankutik ekartzeko laguntza ere; eta udala ados egonda, bi aldeek 2014an sinatutako hitzarmena egokitutu egin behar dela uste dute.

Udalbatzak 2021eko otsailaren 22an egindako bileran erabaki du eskaera onartzea eta bi aldeen betebeharak zehazten dituen hitzarmena ere onartzea.

Gauzak horrela, bi aldeek lokal horren erabilera eta beste puntuak arautzeko ondorengo klausulak dituen hitzarmena hitzartu dute:

**KLAUSULAK**

LEHENENGOA.- Bergarako Udalak Martoko 8an dagoen eraikina erabiltzen lagatzen dio Caritas elkarteari, inolako errentarik edo bestelakoik ordaindu gabe, eta elkartea onartu egiten du.

Dena den, Udalarekin batera herriari zuzendutako ekintza batean parte hartzeo edota egindako lanaren berri herritarrei emateko konpromisoa hartzen du, Udalak horrela eskatzen dionean.

BIGARRENA.- Erabiltzeko lagapen edo zesio honek lau (4) urteko iraupena izango du konbenio hau sinatzen denetik kontatzen hasita, eta urtez urte bi aldeen adostasunarekin luzatu ahal izango da gehienez ere sei (6) urte osatu arte.

Edozein modutan lagapen hau baliogabe gera daiteke epea bukatu aurretik, Udalak udal lokalak lagatzeko beste moduren bat onartuz gero edo lokal horiek udal zerbitzu bat emateko erabiltzea erabakiz gero. Kasu horietan erabiltzaileak ez du inolako kalteordainik jasotzeko eskubiderik izango.

Bestalde, elkartea lokala beste talderen batekin edo batzuekin batera erabili behar duela ere erabaki dezake Udalak, ordutegiak eta erabilpena guztien artean negoziatuz.

HIRUGARRENA.- Caritas elkartea lokala hori honako aktibitate hauetarako erabiliko du: Europatik etorriko den janari soberakina eta baita beste erakunde batzuk emandako janariak ere gordetzeko, eta jasotako janaria banatzeko.

Hemen adostutako erabileratik aparte beste zerbaitetarako erabili nahi izanez gero, berriz aurkeztu beharko du eskaera idatziz udaletxean, zertarako erabili nahi den eta aldaketaren arrazoiak azalduz.

Eskaera aztertu ondoren, Udalbatzarrak dagokion erabakia hartuko du.

Eskaera onartu ezean, lokala libre utzi beharko dute, laga zaien baldintzetan, gehienez ere hilabeteko epean.

LAUGARRENA.- Caritas elkartea bere gain hartzen du lokala orain dagoen bezala kontserbatzeko egin beharreko gastuak egiteko konpromisoa, eta horien berri eman beharko dio aurrez jabeari.

Halaber, ur, argindar, zabor, garbitasun eta mantentze gastuak, horrelakorik balego, elkartea hartuko ditu bere gain.

BOSGARRENA.- Lokalean hobekuntzak egitekotan jabearen oniritzia (idatzizkoa) beharko da. Edozein modutan, egindako obrak lokalaren onerako geratuko dira eta jabeak ez ditu inoiz ordainduko.

SEIGARRENA.- Jabeak edozein momentutan ikuskatu ahal izango du lokala, kontserbazio-egoera ziurtatzeko.

ZAZPIGARRENA.- Eraikinak dituen zergak Udalaren gain joango dira.



Bergarako  
Udala

**ZORTZIGARRENA.-** Lokala astelehenetik larunbatera erabili ahal izango da, 9:00etatik 21:00etara bitartean, bizilagunen lasaitasuna eta bizi-kalitatea errespetatuz.

Baimendutako erabilera bat ematen ari ez zaionean, utzitako lokaleko atea eta baita eraikuntzakoak ere itxita egon beharko dira.

**BEDERATZIGARRENA.-** Agiri hau sinatzeko momentuan, lagatako lokalera sartzeko giltza bat emango zaio Caritas elkarteko ordezkari den José Ramón Aramendi Mendizabal jaunari; eta Caritas elkartea izango da horren erabilera zuzenaren arduraduna.

Emandako giltzari kopia atera ahal izateko, aurrez derrigor Udalaren baimen idatzia lortu beharko da.

**HAMARGARRENA.-** Jabeak ez du bere gain hartzen lokalean egon daitezkeen materialen kalteen, lapurreten edo hondatzeen erantzukizunik.

**HAMAIKAGARRENA.-** Caritas elkarreka gutxienez 150.253 euroko Erantzukizun Zibileko aseguru bat kontratatu beharko du, Udalarekiko erantzukizuna ere barne hartuko duena.

**HAMABIGARRENA.-** Elkarteak honako hizkuntza-irizpideak hartuko ditu kontuan bere jardunean:

- Hizkuntza paisaiako elementuak (errotuluak, argibideak, instrukzioak, herritarrei begirako oharrak,...) eta herritarentzako inprimaki, zozketa-txartela eta bestelako idatziak euskaraz eta, behar balitz, elebitan jarriko dira, eta elebitan jartzekotan euskarazkoari lehentasuna emango zaio.
- Udalarekiko harreman administratiboak (memoria...) euskaraz izango dira.
- Erabiltzaileak eta, oro har, herritarrak euskaraz artatuak izateko duten eskubidea errespetatzeko ahalegina egingo da.

**HAMAHIRUGARRENA.-** Bigarren klausulan jasotakoez gain, honako hauek ere kontratu hau bertan behera lagatzeko arrazoia izango dira:

- a) Martokoa kaleko bizilagunek behin eta berriz kexak aurkeztea, betiere jabearen ustez nahikoa arrazoituak direnean.
- b) Kontratu honetako klausulak ez betetzea.
- c) Elkartea desagertzea.
- d) Indarrean dagoen legerian aurreikusitakoak.

**HAMALAUGARRENA.**- Erabiltzeko lagapen honek ez du sortzen aurrerantzean hor edo beste nonbaiten udal lokalak erabiltzeko eskubiderik.

**HAMABOSGARRENA.**- Lokal horretan ematen den zerbitzuaren gastuei aurre egiteko, Bergarako Udalak hitzarmen hau indarrean dagoen bitartean urteko 10.000 euroko dirulaguntza emango dio Caritas elkarteari.

Dirulaguntza hori ordaintzeko, urte horretako abenduaren 15a baino lehen ordainketa-eskaerarekin batera honako dokumentu hauek aurkeztu beharko ditu elkartea:

- a) Urteko memoria. Bertan zehaztu beharko da, besteak beste, hilero jana jaso duten pertsonen eta boluntarioen kopurua.
- b) Diruz lagundutako zerbitzuaren balantzea eta diru-sarrera eta gastuen zerrenda sailkatua. Zerrenda horretan zehaztu beharko dira hartzekodunaren eta dokumentuaren identifikazioa, zenbatekoa, jaulkipen-data eta, horrelakorik balego, ordainketa-data; eta bertan, era berean, zehaztu egin beharko dira diruz lagundu den jarduera hori finantzatzeko izan dituzten beste diru-sarrera edo dirulaguntzak, adierazita bakoitzaren zenbatekoa zein izan den eta nondik etorri den. Balantzea erreala dela adierazten duen zinpeko aitorpena gehituko zaio, elkarteko ordezkariek sinatuta.
- c) Jasotako beste dirulaguntzen agiriak edo, dirulaguntzarik jaso ez bada, horri buruzko zinpeko aitorpena.

**HAMASEIGARRENA.**- Martoko lokal horren aurrean karga eta deskarga lanak egiteko lekua gordetzeko premiarik balu, behar horren berri emango dio Udaltzaingoari hiru (3) egun lehenago, Udaltzaingoak espazioa erreserbatzeko.

**HAMAZAZPIGARRENA.**- Bergarako Udalak udal brigadaren bitartez lagunduko du Elikagaien Bankutik Martoko lokalera jana eramaten. Horretarako, urte bakoitza hasi baino lehen urteko egutegia egingo da, brigadak lana antolatu ahal izateko.

**HEMEZORTZIGARRENA.**- Caritas-ek hilero janari-banaketaren onuradunen zerrendak bidaliko ditu Udal Gizarte Zerbitzuetara, Gizarte Larrialdi egoeran dauden pertsonek daukaten baliabide edo zerbitzuen eskaintza modu koordinatuan ahalbideratzeko.

**HEMERETZIGARRENA.**- Hitzarmen hau indarrean egongo da lokalaren erabilera lagapena edo zesioa indarrean dagoen bitartean.

**HOGEIGARRENA.**- Hitzarmen hau sinatzean 2014ko martxoaren 31n sinatutako hitzarmena baliogabetuta geratzen da.



Bergarako  
Udala

Eta horrela jasota gera dadin, dokumentu honetako edukiarekin adostasuna azalduz eta leial betetzeko konpromisoa hartuta, goian aipatutako toki eta egunean hirukoiztutu sinatzen dute, eta nik, Udal Idazkariak, guztia egiaztatzen dut.

Gorka Artola

Jose Ramon Aramendi

Maria Concepcion Ugalde







Bergarako  
Udala

En Bergara, a 12 de marzo de 2021,

**REUNIDOS:**

De una parte, don Gorka Artola Alberdi, en su calidad de Alcalde-Presidente del Ayuntamiento de Bergara, en representación del Ayuntamiento de Bergara, y con la asistencia de la Secretaria Municipal M<sup>a</sup> Concepción Ugalde Iceta, quien además dará fe del acto.

De otra parte, Don José Ramón Aramendi Mendizabal, mayor de edad, con DNI nº \_\_\_\_\_, y con domicilio social en Donostia-San Sebastián (Paseo de Salamanca), en su calidad de Directorl de la asociación Caritas y en representación de esta asociación.

Ambas partes se reconocen capacidad para obligarse y

**EXPONEN:**

1. El Ayuntamiento de Bergara es el propietario del edificio de la antigua escuela de Martokoa, sita en Martokoa 8.
2. La asociación Caritas, dado que necesitaba un lugar para guardar los excedentes alimentarios procedentes de Europa, solicitó al ayuntamiento la cesión de un local en dicho edificio, y el ayuntamiento –en sesión celebrada por el Pleno de la Corporación Municipal el 31 de marzo de 2014– acordó su aprobación y se firmó un convenio.
3. Ahora, la asociación Caritas necesita seguir utilizando el local, pero solicita al ayuntamiento una subvención para afrontar los gastos generados por el servicio que presta en el mismo, así como ayuda para transportar los alimentos desde el Banco de Alimentos; y estando el ayuntamiento conforme con ello, ambas partes consideran que se ha de adecuar el convenio suscrito en 2014.

El Pleno de la Corporación Municipal, en sesión celebrada el 22 de febrero de 2021 ha acordado aprobar la solicitud, así como el convenio que determina las obligaciones de ambas partes.

Así pues, a fin de regular por ambas partes el uso del este local y el resto de aspectos, han acordado el convenio que contiene las siguientes cláusulas:

**CLÁUSULAS**

PRIMERA. - El Ayuntamiento de Bergara cede a la asociación Caritas el uso del edificio sito en Martokoa 8, sin abonar ningún tipo de renta ni contraprestación, y la asociación lo admite.

No obstante, la asociación se compromete a participar junto con el Ayuntamiento en algún acto público y/o a informar a la ciudadanía del trabajo realizado, cuando se lo solicite el Ayuntamiento.

SEGUNDA. - Esta cesión de uso tendrá una duración de cuatro (4) años –a contar desde la firma del presente convenio –, y será prorrogable por periodos anuales con la conformidad de ambas partes hasta completar un periodo máximo de seis (6) años. En cualquier caso, la presente cesión podrá quedar sin efecto antes de que finalice el plazo, en caso de que el ayuntamiento aprobara otro modo de cesión de los locales municipales o se acordara utilizar estos locales para prestar un servicio municipal. En estos casos, la persona o entidad usuaria no tendrá derecho a indemnización alguna.

Por otra parte, el ayuntamiento puede acordar que la asociación deba compartir el local con otro u otros grupos, para lo cual se negociarán conjuntamente los horarios y el uso.

TERCERA. - La asociación Caritas utilizará este local para las siguientes actividades: Almacenamiento del excedente alimentario procedente de Europa y de otras instituciones, y distribución del mismo.

En caso de querer utilizarlo para otro uso no contemplado en los acordados en el presente documento, la asociación deberá presentar nuevamente una solicitud por escrito en el ayuntamiento, exponiendo el uso que se le quiere dar y los motivos de dicha modificación.

Una vez analizada la solicitud, el Pleno de la Corporación Municipal adoptará el acuerdo correspondiente.

En caso de no aprobarse la solicitud, en el plazo máximo de un mes deberán dejar libre el local en las mismas condiciones en las que se le cedió.

CUARTA. - La asociación Caritas asume el compromiso de realizar los gastos necesarios para conservar el local en las condiciones actuales, debiendo previamente dar cuenta de los mismos al propietario. Así mismo, la asociación asume los gastos de agua, electricidad, basuras, limpieza y mantenimiento, si los hubiera.

QUINTA. - Para realizar mejoras en el local, será necesario contar con el consentimiento expreso, por escrito, del propietario. En todo caso, las obras que se realicen quedarán como mejora del local y el propietario no las abonará en ningún caso.

SEXTA. - El propietario podrá inspeccionar el local en cualquier momento, para comprobar su estado de conservación.



SÉPTIMA. - Los impuestos sobre el edificio correrán por cuenta del ayuntamiento.

OCTAVA. - El local se podrá utilizar de lunes a sábado, de 9:00 a 21:00 horas, respetando la tranquilidad y la calidad de vida de los/as vecinos/as. Durante el tiempo en que no se esté realizando un uso autorizado, tanto las puertas del local cedido como las del edificio deberán permanecer cerradas.

NOVENA. - En el momento de la firma de este documento se entregará al representante de la asociación Caritas, José Ramón Aramendi Mendizabal, una llave para acceder al local cedido, haciéndose responsable la asociación Caritas de su correcto uso. Para hacer copia de la llave proporcionada, se deberá obtener obligatoriamente la autorización previa y por escrito del ayuntamiento.

DÉCIMA. - El propietario no se hace responsable de ningún daño, robo o desperfecto que pudiera sufrir el material almacenado en el local.

UNDÉCIMA. - La asociación Caritas deberá contratar un Seguro de Responsabilidad Civil de al menos 150.253 euros, que incluirá también la responsabilidad respecto al ayuntamiento.

DUODÉCIMA. - La asociación en el ejercicio de su actividad tendrá en cuenta los criterios lingüísticos siguientes:

- Los elementos del paisaje lingüístico (rótulos, información, instrucciones, avisos públicos...), así como los impresos, boletos de sorteos y demás escritos dirigidos al público, estarán redactados en euskera y, de ser necesario, en las dos lenguas; en este último caso, se dará preferencia al euskera.
- Las relaciones administrativas con el ayuntamiento serán en euskera (memoria...).
- Se procurará respetar el derecho que asiste a las personas usuarias y, en general, a la ciudadanía para ser atendidas en euskera.

DECIMOTERCERA. - Los siguientes hechos, además de los recogidos en la segunda cláusula, serán motivo de resolución del contrato:

- a) Presentación de quejas reiteradas por parte de las personas vecinas de Martokoa, cuando el propietario las considere suficientemente razonables.
- b) Incumplimiento de las cláusulas del presente contrato.
- c) Disolución de la asociación.
- d) Todos aquellos previstos en la legislación vigente.

**DECIMOCUARTA.** - Esta cesión de uso no genera derecho alguno para utilizar en adelante locales municipales ni ahí ni en otro lugar.

**DECIMOQUINTA.** - Con el fin de afrontar los gastos del servicio prestado en este local, mientras se mantenga vigente el presente convenio el Ayuntamiento de Bergara concederá a la asociación Caritas una subvención anual de 10.000 euros.

Para el abono de la subvención, antes del 15 de diciembre del año en cuestión la asociación deberá presentar una solicitud de abono junto con los siguientes documentos:

- a) Memoria anual, en la que se concretará, entre otros puntos, el número de personas que reciben alimentos cada mes, así como el número de personas voluntarias.
- b) Balance del servicio subvencionado y relación clasificada de ingresos y gastos, debiendo indicar la identificación del acreedor y del documento, su importe, fecha de emisión y, en su caso, fecha de pago, así como otros ingresos o subvenciones que hayan financiado la actividad subvencionada con indicación del importe y procedencia de cada uno de ellos. Se acompañará de una declaración jurada, firmada por la persona representante de la asociación, manifestando que el balance es real.
- c) Documentación del resto de subvenciones percibidas o, en caso de no haberlas, declaración jurada en ese sentido.

**DECIMOSEXTA.** - En caso de necesitar que se reserve una zona para labores de carga y descarga frente al local de Martokoa, deberá comunicar dicha necesidad a la Policía Municipal con una antelación de tres (3) días, a fin de que los agentes procedan a reservar el espacio.

**DECIMOSÉPTIMA.** - El Ayuntamiento de Bergara, mediante la brigada municipal, ayudará a transportar los alimentos desde el Banco de Alimentos hasta el local de Martokoa. Para ello, antes del inicio de cada año se elaborará un calendario anual a fin de que la brigada pueda organizar su trabajo.

**DECIMOCTAVA.** - Caritas remitirá mensualmente a los Servicios Sociales Municipales las listas de las personas beneficiarias del reparto de alimentos, a fin de que se puedan ofrecer de un modo coordinado los recursos o servicios a los que pueden acceder las personas que se encuentran en situación de Emergencia Social.

**DECIMONOVENA.** - Este convenio se mantendrá vigente mientras esté en vigor la cesión de uso del local.

**VIGÉSIMA.** - Con la firma del presente convenio queda invalidado el que fue suscrito el 31 de marzo de 2014.



Bergarako  
Udala

Y para que así conste, en prueba de conformidad con el contenido del presente documento, y asumiendo el compromiso de cumplirlo fielmente, lo suscriben por triplicado en la fecha y lugar arriba consignados, y yo, la Secretaria Municipal, doy fe de ello.



Gorka Artola

José Ramón Aramendi

María Concepción Ugalde

  


